

Lehen Estatutua

Euskaldunon Egunkaria, 1991-08-04: 2.

Egun hauetan, Catalunyaoko Presidentea den Jordi Pujol jaunak sortutako eztabaida dela eta, alderdi abertzaleetako ordezkari batzu Euskadikoa aipatu dute Estatu espainolean lehen lortutako Estatutua bezala. Eta ez da hala. Une egokia da Estatutuen historia laburra gogora ekartzeko.

Catalunya: Francesc Maciá (1859-1933) militar kataluniarrak, "Estat Catalá" alderdi nazionalista sortzen du 1922an, Primo de Riveraren etorrerakin exilatzen da (1923); Errepublikarekin itzuli (1931) eta partidu "Ezquerria Republicana de Catalunya"ren buru bezala hauteskundeak irabazi eta Errepublika sortu zen egun berean (1931.go apirilak 14) aldarrikatzen du "Catalunyaoko Errepublika", Madrilen presiopean, "Generalitat de Catalunya" bezala geratzen da, Maciá buru, eta 1932.go irailaren 2an ezagutua izan zen "Catalunyaoko Estatutua". Hurrengo urtean Maciá hil, eta bere ordezkari Lluís Companys izendatu zuten (1933). (Hemen aipatu beharra dago gako bat: 1930an politikoki espainolek Errepublikaren alde "Pacto de San Sebastián" deritzaiona firmatu zutela; kataluniarrak bertan zirela, eta euskaldunak ez).

Euskadi: Jose Antonio Agirrek ere EAJ/PNV alderdiarekin batera irabazi eta aldarrikatu zuten Eusko Errepublika, eta 1839ko Legearen derogazioa eskatu ere. Getxon, Udaleko balkoitik; baina, alde batetik, gure herria ez zegoen politikoki Catalunya bezain antolatua eta artikulatua, eta, bestetik, Donostiako Paktoan ez egotea kobratu zion Espainiako ezkerrek. Gero, 1934ko iraultza ondoren, ezkerria hurbildu (Bilbo, hila zen Maciá-ri omenaldia) eta Madrilen Estatutua dagoeneko onartua bazegoen ere ez zen 1936 arte (urriak 1) ofizialki ezagutua izan.